

GIPUZKOAKO EUSKAL TOPONIMIAZKO MATERIALEAK

Donostia, 1988-I-29

Luis M. Mujika Urdangarin

Herri baten toponimi-materialeak balio historiko, fisiko, topografiko, kultural eta ekologikoa duten iturri aberats gerta daitezke. Toponimia, ala ere, hizkuntz gertakizuna da, nagusiki, eskualde batean mintzaira zehatz batek eduki duen bizitza eta indarraren islada ukaezin baita. Euskal toponimiaren kasuan nabarmen dira izen nabar eta ugariak, oso maiz, aski arkaikoak, gure luraren zokogune bakoitzaren adierazgarri bezala, hots, gure lur, zelai, sakan, ibar, haran, soro, oihan, malkar bakoitzaren lekuko gisa. Euskal lurraldearen izaera malkartsuak egiten du gure toponimia herri zelaituena baino ugariagoa izatea, adibidez, Gaztela, Aragoa eta Kataluniako parte nagusi batekoa baino oparagoa.

Guk gure materiale hauetan, Gipuzkoako probintzian soilik, 120.000 inguruko toponimo kopurua bildu dugu, toponimoen aldaki (variante) dialektal eta behedialektal gehienak jaso ditugaririk.

Euskararen ezagutza sakonago baterako beharrezkoa da materiale hau biltzea gerora euskararen lexikoa, konposakerako legeak, fonetika eta dialektologia zehatza sakonkiago azter dadin. Beraz, toponimia, hitz arkai-ko aunitz gordetzen duelarik, eremu aproposa da gure hiztegia hedatzeko eta, baita, euskalki bakoitzaren mugak ere hobekiago zehazteko.

Guk eskaintzen ditugun materialetan, bada, halako toponimoaren lekukotza ematen da, lekuizenaren kokatze topografikoa egin gabe, nahiz-eta aunitzetan zehaztaper hori ere eman. Kokatze hori, noski, ekipo-lan baten eginkizuna litzateke, berak dituen zailtasunengatik. Dena dela, guri toponimoa *hizkuntz-fenomeno* gisa interesatzen zaigu hemen, bereziki.

I. MATERIALE TOPONIMIKOAREN ALDE ZENBAIT

Bilduriko materiale toponimikoak onomastikaren esanahi zabalean ulertzen ditugu, ezen-eta bertan oikonimiari, fitonimiari, hidronimiari, oronimiari, patronimiari dagokion izen-multzo aunitz sartzen baita.

Toponimi-materiale honetako alde nagusienak atalez-atal hauek lirateke:

- a) Herri-izenak. Toponimia nagusia.
- b) Mendiak (muinoak, lepoak, hegiak, mendateak, tontorrak, arroak).
- c) Zelaiak edo lautadak, haranak, ibarrak.
- d) Oihanak, malkarrak, sasitzak, txaradiak.
- e) Belardiak, larrediak, soroak, lurtsailak, baratzeak.
- f) Iturriak, errekek, ibaiak, idoiak.
- g) Bordak, sarobeak, artegiak, korteak.
- h) Baserriak.
- i) Zubiak, etxeak, ermitak (oikonimia, nagusiki).

Materialeen zehar, herri bakoitzaren toponimia tipia eskaini baino lehen, beti alde toponimiko desberdinen laburpen bat ematen da, adibidez, landareria edo flora, fauna, minerale, nekazaritza, abelzaintza, industriari atxikitako ziklo kulturalak (errotak, ferrolak, liho-industria, arrobiak, teileriak); baita funts erlijiosoaren duen toponimia, eta, ondoren, alderdi filologiko bereziak. Eredu gisa, hona hemen Bergara-ko toponimia dela-eta egin dugun bereizketa (Ikus dagoeneko argitaratua dugun *Toponimia, fonetika, lexikoa* liburua, 160-170 orriak).

A) ALDE FISIKOAK

I. Orografia

I.1. Orotariko izenak:

Aitz (ATX, AZ): Iruaitzeta, Aitzbeltza, Aizkibel 1760 urtea. Aizburu, Aizpeondo, Soroaitzeta, Atxaiturri, Atxondo.

Toki (*Leku*): Azpileku, Garalekueta, Iraileku, Kargaleku, Pelotatokiaidea.

Aran: Arane, Zumarán, Aranburu.

Ibar: Ibarrola, Ibargoitia, Ibarguren, Ibarbaltz 1861 urtea, Ibarzuri 1797 urtea.

Alde: Aldabide, Aldabidepegotxe (?), Arraskalde, Eguzkiaidea.

Azpi: Azpileku.

Be (*Pe*): Abelospe, Aldape, Adaolape, Basabe, Etxetxope, Garape, Goikosolapia.

Arte: Basarte, Sorobitarte, Zabarte, Larrarte, Kortabitarte.

Ager: Agirrealdapa, Agerrealdea, Iparagarre.

Ondo (*Iri*): Egizabalondo, Olondo, Elizondo, Etxondo.

Mendi: Andumendi, Arizmendi, Belamendi, Mendigaña.

Oste: Arzioste, Azuloste, Boluostia, Etxeostia, Iraolaoste, Itxostea, Mokorroste.

Besteak: Zalduamendi.

I.2. *Gainbeherak:*

Buru: Agirreburu 1813 urtea, Aingeruburu, Aizerburu, Amatianoburu, Lizarburu, Telleburu, Esparruburu, Askaburu, Egiburu.

Bizkar: Bizkardo, Biskardosakona.

Gain (Gañ/Gan): Astigaña, Gañeder, Guensolugain.

Sakon: Askargasakona, Bigarrenzakona, Sakona, Sakona-Ibarrotza, Sakoandi, Sakondegi.

Garai: Garaikoetxea.

Goi/Goen: Goenengogastañaria, Goikoiturri, Guenbulu, Ojanguren, Osazulogoena.

Aier: Aierdixiki, Aiardiazpia 1777 urtea.

Muño: Belamuño, Elkoromuño, Pagamuño, Muñegi, Muñoa 1810 urtea, Munabeburu, Unamuno.

Amil: Amilaga, Amilleta, Amilpe.

Arru/Arro: Arrueta, Arrupe, Arrube 1811 urtea.

Leze: Lesazulo, Lesabolu, Lezaran.

Zoko: Zokotegi.

Mehaka: Meaka 1812 urtea, Miaka 1857 urtea, Miakaegia 1846 urtea.

Egi: Boluegia, Egialdea, Egiasakona, Egibar, Egieder, Egino, Egigoiti, Egisol, Gastañakoegia, Eginoburua, Keisetakoegia.

Aldapa: Aldapa, Aldapeta, Aldapiaesparruzakona, Egialdapa, Oindaoaldapa.

Malkar: Malkarra, Malkorburua.

Aldatz: Aldatza.

Besteak: Erroitz, Irutontor, Irutontorreta, Mugarrieta, Mugarri.

II. **Landak Orokorki**

II.1. *Orotarikoak*

Landa: Landaeta.

Lau: Bekolaua, Garolau, Laua, Munakolaua, Osaizlauba.

Zelai: Keisetazelai, Pagolazelai, Santazelai, Sorginzelai, Zelaikoesparrua.

Ibar: Aribar 1775 urtea, Askasibar, Berezibar, Ibarbalz, Ibarzuri 1797 urtea, Ibarrola, Iburguren, Ibarbaltz 1861 urtea.

Baso: Aizpurubaso, Aldetabasua, Basalar, Atxotegibaso.

Zabal: Basozabal, Olazabal, Sorozabal.

Besteak: Otzordoka, Eluse, Eluseirubaso, Ziarsolo.

III. Flora

III.1 *Zuhaitzak eta zuhaixkak*

Agin: Aginaga.

Haritz: Aristi, Arizbakotxa, Ariznabarreta, Aristisakona, Arizaundi, Arizpe.

Gaztain: Gastandola, Gastain, Gastañarizbaldo, Gastañatxueta, Gastañazulo, Gastañari.

Elorri: Elosua, Elorreta, Elorregi, Elorragaitz.

Aran (Okaran): Arando, Aranbeltz, Okarandi.

Arantza: Aranzadua, Aranzasti.

Zugaitz: Zugasti, Zugastegi.

Arte: Arteaga, Arteagaostea, Arteta.

Lizar: Lizardi, Lizardierrekea 1608 urtea, Lizarrondo 1812 urtea, Lizarburua, Lizarsolua.

Intxaur: Intxaurpe, Intxaurreta.

Pago: Pagomuño, Pagaldai 1797 urtea, Pagadisoste, Pagerre, Pagaerre.

Gorosti: Gorosarri, Gorostalde, Gorostidi, Korostegi.

Sagar: Bekosagasti.

Urritz: Urreizisakona, Urrejolaurre, Urrestitxiki.

Ote: Otebeltz, Otabarreta, Otaegi, Otaerre.

Urki: Urkizu, Urkizuerreka.

Ametz: Amesti, Amezabalaga, Amestiburua.

Haltza: Alsaluze, Altzazu, Altzerreka, Altzeta, Altluzeta, Alzuondo.

Gerezi: Keiseta, Keisetakoegia, Keisburuta 1813 urtea, Kreiseta 1812 urtea.

Zur: Zurruga, Zupide, Zuraiztipia.

Besteak: Askarrondo, Askarraga, Askarragasakona, Askargorta, Eskia, Galarraga, Zumaketa, Zumeta, Zumaran.

III.2 *Landareak (fitonimoak)*

Belar: Belastegi, Belastegiburu, Berastegierreka.

Madari: Madaripotzu, Madaripotzuklabelinaitz.

Arto: Artosarri, Artuaga.

Illar, (Txillar, Iñar): Idarragaldea, Illarragazpikoa, Illarregi.

Txara: Errekanondokotxara, Txarakua, Txaraxiki, Txarazabal.

Iratxe (Ira): Idaleku, Iraburuaundia, Iraleku, Iraluze.

Sasi: Artasasi, Artzisasi 1842 urtea, Sasibalz 1811 urtea.

Untz: Unzabaso, Unzabal, Unzueta, Untzaerreka (Auntzaerreka?).

Isats (Gisats): Gisasola, Gisasueta, Isasburu, Isasmendi.

Intsusa: Intxuerreka, Intxuzabal.

Mahats: Mastiasoroaldea, Masterreka.

Albitz: Albisua, Albisubaso, Albizuri.

Besteak: Azpilleta, Errondo, Klabelinaitz, Klabelinaltzeta, Landareta, Lapatzalde, Makatzaga, Mallukileku, Mispildi, Pikusoro, Sostratxikia.

IV. Fauna (Animaleria)**IV.1. *Animale nagusiak***

Otso: Osazulo 1811 urtea.

Azkon: Azkonasulo, Azkonazulueta, Azkonabieta.

Besteak: Aunzerreka, Satorretxe.

IV.2. *Xomorroak eta beste*

Erle: Erlaetxe, Erlaetxegi.

Karakola: Karakoleta.

IV.3. *Hegaztiak*

Txori: Txorialdea, Txorietxealdea.

Ontza: Onzabaso.

Uso: Usogastañadi, Usogastañegi.

Besteak: Mosolotegi.

V. Mineraleak**V.1. *Mineraleak orokorki***

Harri: Arlaban, Armuñoeta, Arriluze 1853 urtea, Arzabal.

Burdina: Burdiñeta, Burdiñoa, Burdinkruz, Burdinkuruze.

Kisu: Kisula (Kisuola?).

Hondar: Ondarza.

Lur: Lubarri, Lugarri.

Lohi: Loidi. Loizubieta.

VI. Hidrografia**VI.1. *Hidrografia orokorki***

Erreka: Koroserreka, Lisibaerreka, Sorginerreka, Narbaizaerreka, Arrainerreka, Atxotegierreka, Aunzerreka, Belastegierreka, Gorosabeleerreka, Errekatxoeta, Intxuerreka, Abrainerreka, Altzerreka, Aizerreka 1811 urtea, Epeleereta.

Idoi: Idoi.

Iturri: Anduiturri, Anguaiturri, Antxiturri, Atxaiturri, Iturriondo, Iturbegieta 1857 urtea, Iturrimendi, Iturburu, Metaliturri, Sonsiturri.

Latsa: Lasao, Lasarte, Lasarterreka, Lazpiurburu.

Ibai: Arzibai.

Ur: Urzulo, Ubera, Ibi, Iburbarren, Ubidea, Ugalde, Uberasolo, Ugaranabidea, Ursalto.

Ugalde (Ugarte): Huarteburua, Ugartelau.
Osin: Agorrosin, Agirreosinaldekoa, Larrosin, Osinaga, Osineta.
Putzu: Madaripotzu, Potzuetalaua, Pozotxueta.
Madura: Madurea, Madurasolea.
Besteak: Neberaldea, Presaburu, Presaldea.

B) ALDE EDO ZIKLO KULTURALAK

I. Komunikabideak eta Eraikuntza

I.1. Komunikabideak

Bide: Bidebaso, Bidebia, Bideburua, Bidegorrieta 1811 urtea, Bidaburu.
Kamio: Kaminpea, Kaminburua.
Estrata (Estrada): Estrata, Estrataldia.
(Bide) Gurutze: Askaduibidekurutza, Bidekuruzeta, Kurutzeburua.

I.2. Eraikuntzak

Iri (Uri): Basauri, Iribe, Iriburu.
Etxe: Etxaburua, Etxaurre, Etxaldeparrua, Etxeingurua.
Zubi: Zubizua, Zubibarri.
Gaztelu: Gaztelu, Gazteluburu.
Horma: Ormape, Ormabarri.
Dorre: Torre 1818 urtea, Torreoste, Torrealdia.
Besteak: Hospitalgastaña, Hospitalbaso, Txabolaga, Txabolaburu.

II. Nekazal kultura

Barruti: Barrutia, Barrutikotxaria.
Larre: Larragoiti, Larragoikoa, Larragoikofalda, Larramendi, Larrategi.
Esparru (Hesi): Aldapiaesparruzakona, Astoesparru, Egiesparrua, Zalai-
 koesparrua, Esparrutxiki, Esparruba.
Larrain: Larrantxota, Larragaña.
Sail: Petrisalla, Sailuzeta, Sailluzia.
Solo: Agirresolo, Makursolo, Solobarria, Artasoro, Atxurisolua, Bekoso-
 luak, Irusolo, Soloandia.
Mindegi: Mintegi 1857 urtea, Muntegisakona, Montegieta (Muntegieta?).
Lubarri: Bekolubarria, Lugarritxo, Lubarri, Lubarriburu.
Besteak: Angiozar, Ipinarriaga 1813 urtea, Ipinsoro, Irabasi.

III. Abere kultura

Asto: Astoesparru.
Mando: Mandaleku, Mandabidea, Mandoerrekaletu.

Saroe: Sarodieta (?).

Egilegor: Egileor, Egilior.

Korta: Aldakorta, Aldakortegi, Goikokorta, Kortabarri, Kortalekua, Alkorta.

Auntza: Auntzerreka.

Besteak: Abeletxe 1792 urtea, Artolazabal, Zezeaga (lugar de toros).

IV. Industria

Errota (Igera, Bolin): Bolintxo, Lesabolu, Bolinburu, Guenbulu, Larrañagabolu, Errotalde, Erroteagasolo.

Labe: Labekua, Labeaga.

Teila: Telleria 1857 urtea, Telletaburu.

Ola: Olaburu, Olabarri, Olakoegi, Olagastañari, Ibarrola, Ansola, Balzola, Olaiturri, Urola, Olariaga.

Liho (Linu): Linapozueta.

Karobi: Karoizarra, Garobietando, Karobiazpia, Garobiburu.

Besteak: Kanteraburu, Upategi.

V. Toponimia erlijiosa

Eliza: Elisbaso, Elizalde, Elejalde.

Gurutze: Guruzeta, Guruzeondo, Guruzekoegia, Irugurutzeondo, Kurutzeta, Kurutzekoegia.

Kalbario: Kalbario.

Kanposantu: Kanposantualdea, Kanposantobidea.

Santu (Santa): Sanjoan, Sanfausto, Sanantolin, Sanmarzial, Sansalbador, Santaesparrua, Santazelai, Andremari.

VI. Oikonimia (etxeizenak)

Amatiano, Garitano (bekoa), Gillengoa, Gomezkortaburua, Jauregi, Juanzarkoa, Kapaingoa, Lopealdeoste, Lopesorobarrena, Marzelegi, Matxinbaso, Migelenaristi, Patxilubarri, Perurena, Petri, Petrierrekandia, Postas, Posadakua, Tabernakua.

C) FILOLOGI ALDEAK

I. Atzizki Zenbait

I.1. –*AGA*: Kruzeaga, Kurutzeaga, Labeaga Makazaga, Olariaga, Osinaga, Otzaga, Pagoaga, Irabolaga, Urteaga, Zezeaga, Zurraga, Asunaga, Arriaga, Arteaga, Arteagasakona, Agirrezeaga, Amillaga, Amezabalaga, Artuaga, Arziaga, Alzarraga, Egiaga, Jaunsuaga, Erroteaga, Galarraga, Ipiñarriaga.

- I.2. *—DI (TI)*: Aranzasti, Elorradi, Gastañari, Gastañadizabal, Makazti, Mispildi, Intxaurdieta, Intxausti, Gorostidi, Korostidi, Okarandia, Olarradi, Pagadia, Sagastia, Urrestixiki, Zabaldia, Zapardiaondo, Zubardi, Sakondi.
- I.3. *—DOI (DUI)*: Aranzadui, Azkaduibidekurutza, Sakoandi, Oñatearistoi.
- I.4. *—ETA (KETA)*: Zelata, Partitueta, Obieta, Telletaburu, Mugarrieta, Orolekueta, Kirueta, Korostieta, Loizubieta, Iruortueta, Irutontorreta, Iturrieta, Iturtxueta, Zapardoeta, Garolekueta, Iruaitzeta, Goroeeta, Guruzeta, Intxaurreta, Intxaurreta, Txapardota, Zumeketa, Karakoleta, Keiseta, Aitzaundieta 1810 urtea. Aldapeta, Altzabieta, Altzeta, Amilleta, Erriluzeta, Arrueta, Anbrosiota, Angoeta, Igorreta, Aristixueta, Azpilleta, Urreta, Errekaxota, Etxekoeta, Balzerreketa.
- I.5. *—OLA*: Aldaola, Gorostola, Iraolaoste, Kisula (Kisuola), Mekola, Pagaola, Urrejolaegiburu, Zamiola, Oronzola, Gisasola.
- I.6. *—ZU (ZA/ZI/ZO/SO/JO)*: Altzazu, Altzaso, Elosua, Eguzkitzaldea, Galarza, Ipintza, Lizarza 1806 urtea, Ondarza, Mugarza, Sagastiza, Sagatza, Urkizaburu, Urkizu, Zubizua, Zuraiztiza.
- I.7. *—(T) EGI (DEGI)*: Osategi, Sakutategi, Zokotegi, Upategi, Zugastegi, Zabalotegi, Irazabaldegi, Korostegi, Odoldegi, Larrategi, Maduatagi, Matxiategi, Marzelegi, Aldakortegi, Amutxastegi, Aranzastegi, Arregi, Arostegi, Arrandetegi, Atxotegi, Amategi, Bagustegi, Beiztegi, Beletegi, Eduegi, Erresinategi, Gallastegi, Gantxegi, Gastegibasoxoa, Illarregi, Lamiategi, Markotegi.
- I.8. *—GIN (GILLE)*: Kapaingua (Kapagingoa).
- I.9. *Atzizki pilatuak*: Intxurdieta, Intxaurtxueta, Mekoleta, Montegieta (Muntegieta?), Sagastiza, Urteaga, Zabaldota (Zabaldoeta).
- I.10 *Besteak*: Bizkardo, Zabaldo.

II. Konposatu zenbait

Etxeurrekosolobarrena, Erdikoesparrupiak, Iruerrekamarraitzeta, Iruetapetrikurutzeondo.

III. Aldaketa fonetikoak. Hitz bitxiak. Besteak

- III.1. *Aldaketa fonetikoak*: Aizkibel, Aizbakotxa, Bidaburu, Bolunbualdea, Bolunostia, Bolunate, Elejalde, Ojanguren, Zupide, Zuburrutiburua, Urrejolaegiburu, Kruzeaga, Lugarri (Lubarri), Kanpanzar, Kaminpea, Iturroz, Irusulu, Intxartxota, Etxaburua, Bidekurtze, Aizpakar, Urbeja (Urbesa).

- III.2. *Hitz bitxiak eta zenbakiak*: Amarraaltzeta, Amarraitzeta, Bigarrenerreka, Bigarrenzakona, Erresinategi, Ikarabide, Iduriburua, Iruaitzeta, Iruerreka, Irutontorreta, Kondesoro, Kakatzeta, Lenengortua, Sorginerreka, Sorginzelai.
- III.3. *Epitetoak eta koloreak*: Arizluzeta, Ariznabargaña 1841 urtea, Arlaban 1811 urtea, Bidegorrieta, Arteagasakona, Egieder, Egileor, Egur-luze, Gañeder, Ibarbalz 1961 urtea, Lizarzasakona, Ortuigarra, Otabeltz, Pagabeltz, Oterre, Pagerre, Paigorri (Pagadigorri?) Ibarzuri 1797 urtea, Sasibalts, Errekabalza.

II. ITURRI DOKUMENTALAK

Hemengo materiale-multzoa, funtsean, artxiboko lana da. Ahozko-iturrietara, lekuko testiguetara, kasu berezitan, soilik, joan gara, halako izen batean zalantzak eduki ditugunean. Dena dela, bide horren mugatasunak izugarriak dira industrializazioak Gipuzkoan suposatu duen desorekatik, baserri aunitz hutsik baitago eta toponimo askoren ezagupide bakarra esku-izkribuetatik bakarrik jaso daiteke. Bestalde tokiko-ikerketa hori komenigarria da egitea ñabardura dialektalak ongi jasotzeko, eta, batez ere, kokapen topografikoa egiteko. Gure interesa, bereziki, filologikoa delarik, eginbehar hori ekipo-lan baterako uzten dugu. Euskaltzaindiak berak bultzatzea ongi legokeena.

Gaurkoz artxibategi probintzialak, eskualdekoak eta municipalak toponimi-dokumentaziorako arrobi onak dira. Beraz, XVI-XVII mendeetako toponimo aunitz aurkitzen da iturri horietan, eta XVIII eta XIX mendeetako *oso ugaria da*.

Protokoloetan, zehazki, materiale ugari XVI. eta XVII. mendeetako, baina Oiñati-ko Artxibategi Probintzian dagoen *Contadurias de Hipotecas* atala toponimiazko arrobi biziki aberatsa da. Horiekin batera XIX mendean Diputazioak eginiko *Nomenclator de Caserios* delakoa, eta Bergara-n, Azpeitian, Tolosa-n eta Donostia-n kokaturiko *Jabetzako erre-gistroak* beste iturri ezinobeak dira. Esan daiteke XIX eta XX mendeetan ezagutzen dugun ia toponimia osoa, erdiarotik hona asaben zehar dator-kiguna, erregistro eta iturri horietan konstatagarria dela. Baita aipagarri dira *Amillaramientos* eta *Amojonamientos* liburuetan aurkitzen diren toponimiazko adierazpenak. *Amilaramenduetan*, konkretuki, toponimia tipia-ren zahaztapan bizia baserrien “*pertenecidos*” direla-eta, soroen, artasoroen, galtasoroen, baratzen eta belardien izenak bilduz. Bestalde, kasu batzutan, toponimozko izen-zerrenda zaharrak topatu ditugu, gure bilketala-*lanak erraztu dituztenak*.

Hona, bada, iturri dokumentalen zerrenda, guk erabili ditugun zehaztapen dialektal eta filologien laburdurak ere emanetz:

- Comp. Isasti = Compendio de Isasti (XVII mendea).
 OGPARG = Oñati-ko Gipuzkoar Protokolo Artxibategia (XVI-XIX mendeak).
 IND. = Indices (Oñati-ko Gipuzkoar Protokolo Artxibategia-n) (XVI, XVII, XVIII mendeak).
 C. HIP. = Contaduría de Hipotecas (Ibidem) (XVIII, XIX mendeak).
 Erreg. = Jabego erregistroa (XIX-XX mendeak).
 Amil. = 1951-eko amilaramendua (Finantza Ministeritzaren Ordezkaritza Artxibategian, Donostia-n).
 Nomenklator = Gipuzkoa-ko baserrien izen zerrenda (1857 urtea).
 Mapa I.G.C. = Mapa del Instituto Geográfico y Catastral (Ediz. 2-gna).
 Artx. Muniz. = Artxibategi munizipala.
 Lib. = Liburua.
 Zenb. = Zenbakia.
 Or. = Orria (folioa).
 Fol. = Folioa.
 Ord. Zenb. = Ordena-zenbakia.
 AN. = Goi-nafarrera (alto navarro).
 B. = Bizkaiera (vizcaíno).
 G. = Gipuzkera (guipuzcoano).
 BN. = Behe-nafarrera (bajo-navarro).
 L. = Lapurtera (labortano).
 S. = Zuberera (suletino).
 Sal. = Saraitzuera (salacenco).
 FHV. = *Luis Mitxelena*. Fonética Histórica Vasca. 1977 urtea.
 APV. = *Luis Mitxelena*. Apellidos Vascos. 3-gn. argitalpena.
 LEEE. = *Luis M. Mujika*. Latina eta erromanikoaren eragina euskaran. Ed. Sendoa, 1982.
 REW. = N. Meyer-Lübke. Romanisches Etymologisches Wörterbuch.
 RIEV. = Revista Internacional de Estudios Vascos.
 FLV. = Fontes Linguae Vasconum.
 BAP. = Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
 Lat. = Latina.
 Gazt. = Gaztelania.
 Gask. = Gaskoinera.
 ZRPh. = Zeitschrift für Romanische Philologie.

III. FILOLOGI ALDEAK

Esan dugunez, euskal toponimia, beste edozeren aurretik, guretzak fenomeno linguistiko paregabera da, topografiarako duen interesaz gain. Beraz, toponimia dugu euskararen egitatean fenomenorik nabarmeneta-

koa. Hori dela-eta, materiale hau eskaintzerakoan tokizenak, orri-oinean, ohar fonetiko, etimologiko, dialektalez eta sufijalez horniturik eskaintzen ditugu.

a) *Fonetika*

Fonetikaren alorrean euskal konposakeran ematen diren fenomenoak kontutan eduki ditugu, eta bereziki:

- *Apofoniak*: *etxe/etxAburu*, *bide/bidAguren*.
- *Oklusiben gorketak* afrikari eta frikari ondoren:
aitz-bitarte/AizPitarte
aitz-gorri/AizKorri.
- Barneko ezpainkarien erorketak:
Arri(bi)llaga/Arrillaga.
Etxe(ba)rren/Etxarren.
- Bokaleen laburdurak:
 $a + o > o$
 $a + e > e$
 $e + o > o$
 $o + e > e$

Azken fenomeno hauek nabarmen Olaeta/*Oleta*, Basaerri/*Baserri*, Muñoeta/*Muñeta*, Otaerreaga/*Oterreaga* kasuetan.

Txistukarien nahasketa (*s/z*, *ts/tz*), gehienetan, bere hartan, aldaketarik gabe, utzi dugu agirien aitorra eta anarkia errespetatuz.

b) *Etimologia*

Etimologia izan da euskal alorrean eremurik labain eta arriskutsuena. Arlo honetan bi jokabide har daitezke: a) denetaz zerbait esan “irudimenaren” bide akritikoak erabiliz, b) etimologiaz deus ez esan, zeharo zokoratuz.

Gure ustetan, ez bata, eta ez bestea, dira onestekoak. Gaur egun etimologiaren eremuan ildo ziurrak eman daitezke, adibidez, latina eta erromanikoaren ildoan doan etimologia zenbaitean; gure arrobiko hitzetan ere komeni da hizkuntzalariek *eluts*, *larratz*, *aier*, *sarobe* gisakoetan *erdal* ordaina ematea, gure izendegi batzuetako labainketak alboratzeko.

Materiale toponimiko hau egiterakoan arazo honetan zuhurrak (prudentes) izaten ahalegindu gara, kasu aunitzetan etimologia ez baitugu abordatzen, “azterkizun gelditzen da” delakoa erasten dugularik. Hitzaren iturriari buruz esandakoak (iritzi arbitrarioak barne) autoreen izenak ere ematen ditugu, maiz. Honetan L. Mitxelena, J. Caro Baroja, K.

Bouda, Meyer-Lübke, Schuchardt, Campión eta beste askoren bibliografia aipatzen dugu.

c) *Euskalkiak*

Toponimia gure asaben ahoan sortu da euskarazko egoera dialektal desberdinetatik; gure probintzian, zehazki, gertakizun dialektalak islada du erdiko gipuzkeran, Debaldeko bizkaieran, ekialde-muturreko goinafarreran, beste Goierri, Tolosa, Hernanialde, Azpeiti aldeko sub-euskalkiez gain. Hori dena hobeto isladatzeko toponimia artxibategi-ko dokumentuetatik aurkituriko fonetismoez jaso dugu. Gure ustetan, toponimia aldaketarik gabe jaso behar da, euskararen eremu tradizionala —aspaldiko fenomeno gisa— zeharo dialektala delako. Bai gaskoinaren eta okzitanoaren eremuan, bai Galizian eta bai Katalunian, toponimistak ñabardura dialektal horiek errespetatzen ahalegintzen dira, maiz.

d) *Atzizkiak*

Toponimia beharrezkoa gertatzen da gure atzizki-arrobiaren desfijazioa hobeto mugatzeko. *Zu/za/ze, eta/keta, -di/ti, doi/dui, aga* eta besteen erabilpen semantikoa toponimiaren erakutsietatik eraiki behar da. Gure lanean, batzutan, toponimia dela-eta, gaztelaniar, aragoiar, gaskoin eta frantses lekuizen eta antroponimoekin parekaketak egiten ditugu.

Ikerketa filologiko honetarako funtsezkoak izan ditugu hurrengo obra hauek: Luis Mitxelena-ren bi lan oinarrizkoak, hots, *Fonética Histórica Vasca* eta *Apellidos Vascos* (azken hau gure deituren erreferentzian oraingoz ziurrena), J. Caro Baroja-ren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, L. Elizalde *Indicaciones elementales sobre la formación de los usuales componentes de las voces toponimicas*, Menéndez Pidal-en *Toponimia prerrománica hispana* eta A. Irigoien-en lan toponimiko zenbait. Baita oso hurbiletik jarraitu dugu gure *Latina eta erromanikoaren eragina* eta *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika* liburuen ildoak. Bestalde, L. Villasante-ren *Voces compuestas vascas y derivadas* delakoa zehaztapen sufijal batzutarako ongaria izan zaigu. Beste etimologisten ildoak biltzeko *FLV, RIEV, Eusko-Jakintza, BAP*. eta gisako aldizkarietan azaldutakoak kontutan eduki ditugu.

IV. MATERIALEAREN HEDAPENA

Gipuzkoa-ko toponimiazko materiale-multzoa, gutxi gorabehera, ehun eta hoge mila tokizenetara igoten da, toponimia hitza esanahi zabalean harturik.

L. Elizalde-k RIEV aldizkarian 1932-tik 1936-era argitaratutako zerrenda (gerora BAP aldizkarian osatua) Gipuzkoa-ko kasuan ez da iristen %-eko 7-ra ere gure izen-multzoarekin gonparaturik. Beraz, gaur egun, Gipuzkoako toponimia tipiaren %-eko 90-a bildu gabe datza.

Toponimi-materiale hauen ugaritasunezko proba gisa hona hemen gipuzkoar herri nagusienetan jaso dugun toki-izen-multzoaren zehaztapena:

ATAUN	3.676 toponimo
OÑATI	5.875 toponimo
AZKOITI	4.256 toponimo
AZPEITI	4.000 toponimo (gutxi gorabehera)
ELGETA	2.206 toponimo
AMEZKETA	1.770 toponimo
IDIAZABAL	1.028 toponimo
ALBIZTUR	1.220 toponimo
DONOSTIA	3.100 toponimo

Materiale-multzo hau hego eta erdialdeko Euskal Herri-ko beste euskualdekoekin parekatuta izugarria da, ezen-eta Mañeru-n (Naf.) 110 bat euskal toponimo baitaude, eta Gares-en beste 100 bat toponimo. Gure zerrendetan, batz bestea, Gipuzkoako toponimi-multzo errearen % 90-a egon daiteke bildurik.

Bestalde, orain arteko mapa nagusienetan seinalaturik dagoen materialea aztertzen badugu (adibidez, Espainiako Ejerzituak urte aunitzetan egina eta gerora *Instituto Geográfico y Catastral* delakoak osatua) ondorio hau ematen digu:

	Inst. GEOGRAFICO Y CATASTRAL (mapan)	ARTXIBO-MATERIALEA (txosten honetakoa)
OREXA-n	13 toponimo	530 toponimo
GAZTELU-n	11 toponimo	750 toponimo
BERGARA-n	46 (90) toponimo	4.500 toponimo
BERASTEGI-n	31 toponimo	1.900 toponimo
LIZARTZA-n	13 toponimo	1.250 toponimo
BEASAIN-en	33 toponimo	2.300 toponimo
LEGAZPI-n	31 (48) toponimo	2.400 toponimo

Instituto Geográfico y Catastral-aren adierazpen toponimikoak Gipuzkoako Diputazioaren katastro-mapaz gaintitua aurkitzen dira baserri, erreka, bide mendien kokapena eta izena dela-eta, baina mapa horien helburu nagusia topografikoa delarik beraietan ere gure euskal toponimo tipi gehientsua falta da.

Azterketa konparatibo honetatik hau ateratzen da, alegia, oraingoz orain, gure toponimoen arrobi gehiena argitaratu gabe dagoela, eta kome-ni dela argitaratzea.

V. ORAIN ARTE GUK ARGITARATUA

Gipuzkoan, J. Arin, Juan San Martin, Jesus Elozegi delakoez gain, toponimia urri argitaratu da. Ondoren, guk orain arte argitara emana adierazten dugu, beti Gipuzkoako probintziara mugatuta:

a) "Gaztelu eta Oresa-ko toponimia, Gipuzkoa", BSBAP (1985) 271-321.

b) "Lizartzako toponimoak. Azterketa linguistikoa", Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura, 5, 19-61.

c) "Errenteriako toponimoak (materiale zenbait eta oharrak)", Bil-duma I, 145-191.

d) "Berastegi-ko toponimia" (azterketa lexikala eta dokumentala), Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura (1987) (prentsan).

e) "Zarautz-ko toponimoak (ohar dokumentalak eta filologikoa)", (Ayuntamiento de Zarautz, 1987).

f) Toponimia, Fonetika, Lexikoa, Edit. Kriselu, 1987, 426 or.

Dena dela, nahiz-eta materiale hau publikaturik egon, eskuartean dugun %-eko 80-ak (artxibo bidez, funtsean, bilduak) argitaratu gabe darrai.

VI. LAN HONEN HELBURUA

Lan honen helburu nagusia gure kulturaren adierazpen nagusienetako bat ez galtzea izan da, euskaran ezer gutxi baitago hain ugari eta aberats *toponimia* bezain. Izan ere, gure mendi, sakan, soro, belardi, erreka eta iturriek "oraindik" euskara mintzaten dihardute, gure hirigunetako hainbat eta hainbat semek euskara hori abandonatua edo ez-ezaguna duen bitartean. Gipuzkoako 120.000-ko toponimiazko izen-multzo hau gure paisajeen ahokatutako Euskal Hiztegi Nagusi bat da, gaurko isilune eta abandonutik ateratzea eskatzen duena. Toponimi-multzo hau larehun orriko hamazazpi bat liburu-aletara iritsiko litzateke argitaratzekotan.

Gure ustetan, Euskaltzaindiak, euskal Diputazioek, Unibertsitateak, eta beste erakundeek altxor guzti hau jasotzen eta argitaratzen arreta berezia jarri behar lukete. Orain arteko Euskaltzaindiaren ardurak eta lanak, horrela, beste zitu berri batez borobilduak ikusiko lirateke. Euskal Herria-ren urbanizazio gaitzak gure toponimi zahar-oparoa galtzeko arriskua eskaintzen digunean inoiz baino ahalegin biziagoa jarri behar litzateke altxor hau jasotzen eta ezagutarazten. Ezin daiteke euskara beraren eraikuntza zientifiko serioa egin toponimiari tarte berezia eskaini gabe.